

Hitzaurrea

Krisi eta aldaketa globalen testuinguru batean herritartasuna, lurraldea eta botere politikoaren arteko artikulazioa eraldaketa prozesu batean murgiltzen da. Egoera horretan, estatu gabeko nazioen subiranotasunaren eskaera suspertu egiten da, *demosa* edo herrigintza eta hiritarren garatze prozesu demokratikoak aktibatzen dira, gobernantza ereduak aztergai bihurtzen dira, estatuen konfigurazioa debatan jartzen dira, lurraldearen eredu soziala edo sozio-ekonomikoa artikulazio horren eztabaidan kokatzen da, gobernantza sare nahasi eta maila desberdinetako testuinguruan herritartasunak erabakitzeko subjektu izatea aldarrikatzen du gizarte zibilean oinarritutako mugimenduak sortuz.

Guzti honek sortzen dituen debate konplexuei bidea emateko, dimentsio ugari lantzea eta elkarlotzea behar duen gaiari hausnarketa eta elkarrizketa prozesuak abian jartzeko, *Nazioak eta Estatuak XXI. Mendean: Demokrazia eta Erabakitze Eskubidea Nazioarteko Jardunaldiak* antolatu genituen.

Eusko Ikaskuntzaren helburua Euskal Herriko gizarteak garrantzitsutzat jotzen dituen arazoei aurre egiten laguntzeko irtenbideak bideratzea eta proposatzea da. Eta horretarako, funtsezkoa da hausnarketa eta elkarrizketa bideratuko dituzten gune anitzak sortzea.

Nazioarteko jardunaldi hauen helburu nagusienetako bat, praktikan gertatzen diren diskurtsoen azterketa akademikoa bideratzea izan da; akademiaren eta gizarte zibilaren arteko elkarrizketa bideratuz, ikerlariak eta gizarte zibileko ordezkariak bilduz. Eta horretarako, funtsezkoa izan da Eusko Ikaskuntzaren babespean bulztatu dugun Euskal Herriko Unibertsitate guztien elkarlana.

Lankidetzat marko horretan, ikuspegi akademiko anitz batetik nazioartean burujabetzaren inguruan gertatzen ari diren prozesu politiko garaikideak aztertzea nahi izan da: lurraldezko botere politikoaren antolaketa eta banaketari dagozkion aldaketak, zentralizazio eta deszentralizazio joerak, eta, batez ere, erabakitzeko eskubidearen inguruan berriki piztu diren aldarrikapenak. Bestalde, bide posibleak eta nazioarteko zein europar mailako edo estatu espainiarreko arau markoak aztertu dira irtenbideak zeintzuk izan daitezkeen identifikatzen laguntzeko. Finean, Europar Batasunean eta, bereziki, bera osatzen duten estatuen eraketan gertaera hauek guztiek izango duten eragina aztertzei asmoa izan dugu jardunaldi hauetan.

Egun horietan landutako kontzeptuak, aztertutako prozesuak eta estrategiak, teoria eta praxiaren arteko uztardurekin lotutako hausnarketak, akademia eta gizarte eragileen arteko elkarrizketa, eztabaiden emaitzak, planteatzen diren galdera berriak... hori guzti hori jartzen dugu eskuragarri argitalpen honen bitartez.

Honekin, irekitako hausnarketa eta elkarrizketa guneari hasiera eman besterik ez dugu egin. Eusko Ikaskuntzaren *egituraketa sozio-politiko*a eremuaren baitan garatuko diren prozesuen bidez, hurbilketa poliedrikoa behar duen gai honi erantzuna bilatzen jarraituko dugu eta, beti, desberdinen arteko lankidetzaz egituratuz, gizarte zibilarekin batera elkarrizketa guneak zabalduz eta Euskal Unibertsitate guztien elkarlana bultzatuz.

Beatriz Akizu
Egituraketa Sozio-politikoaren Eremuaren Arduraduna

Prólogo

En un contexto de crisis y de cambios globales, la articulación entre ciudadanía, territorio y poder político se ve inmersa en un proceso de transformación. Así, se reactiva la reivindicación de soberanía de las naciones sin estado; se impulsan procesos democráticos de desarrollo del *demos*, movimientos sociales de construcción comunitaria e impulso político; los modelos de gobernanza son objeto de análisis; se somete a debate la configuración de los estados; el modelo social o socioeconómico del territorio se sitúa como parte del debate de esa articulación; y, en el contexto de esa red compleja de gobernanza, la ciudadanía reivindica su carácter como sujeto de decisión creando movimientos basados en la sociedad civil.

A fin de dar paso a los complejos debates que genera todo esto y de poner en marcha los procesos de reflexión y diálogo en torno a un tema que exige un tratamiento e interrelación multidisciplinar, organizamos las Jornadas Internacionales *Naciones y Estados en el Siglo XXI: Democracia y Derecho a Decidir*.

El objetivo de Eusko Ikaskuntza es encauzar y proponer soluciones que ayuden a afrontar los problemas considerados importantes por la sociedad de Euskal Herria. Y, para ello, es fundamental crear espacios plurales que canalicen la reflexión y el diálogo.

Uno de los principales objetivos de estas jornadas internacionales ha sido el de guiar un análisis académico sobre los discursos que se dan en la práctica, canalizando el diálogo entre academia y sociedad, reuniendo a investigadores y a representantes de la sociedad civil. Y, para ello, ha sido fundamental la colaboración de todas las universidades de Euskal Herria, colaboración impulsada desde Eusko Ikaskuntza.

En este marco de colaboración, se han querido estudiar con una perspectiva académica plural los procesos políticos contemporáneos que se están dando a nivel internacional en torno a la autodeterminación: los cambios en la organización y distribución del poder político territorial, las tendencias centralizadoras y descentralizadoras, y, sobre todo, las reivindicaciones que se han activado en torno al derecho a decidir. Por otra parte, se han analizado las posibles vías y los marcos normativos a nivel europeo y del estado español, para tratar de identificar cuáles pueden ser las soluciones. En último término, en estas jornadas se ha querido estudiar la influencia que tendrán todos estos acontecimientos en la Unión Europea y, especialmente, en la configuración de los estados que la componen.

Los conceptos tratados durante estos días, los procesos y las estrategias analizadas, las reflexiones relacionadas con la conexión entre teoría y praxis, el diálogo entre academia y agentes sociales, los resultados de los debates, las nuevas cuestiones que se plantean... se ponen a disposición en esta publicación.

Con esto, no hemos hecho más que dar inicio al espacio de reflexión y diálogo que hemos abierto. Por medio de los procesos que irán desarrollándose en el seno del *área de estructuración socio-política* de Eusko Ikaskuntza, seguiremos buscando la respuesta a este tema que precisa de una aproximación poliédrica, siempre articulando la colaboración entre diferentes, abriendo espacios de diálogo junto con la sociedad civil y buscando la colaboración entre todas las universidades vascas.

Beatriz Akizu
Responsable del Área de Estructuración Socio-política